

DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEAN EUSKARA IRAKASLE LANPOSTU BI BETETZEKO ETA LAN-POLTSA OSATZEKO HIRUGARREN ARIKETAREN EMAITZAK BEHIN BETIKOTZAT ONARTZEA, ETA MERITU LEHIAKETAREN NONDIK NORAKOAK.

Epaimahai kalifikatzaileak, 2024ko maiatzaren 10ean egindako bileran, honako hau erabaki zuen:

LEHENENGOA.- DEBABE Udal Euskaltegien Mankomunitatean euskara irakasle lanpostu bi betetzeko eta lan-poltsa osatzeko hirugarren ariketaren emaitzen berri ematea **maiatzaren 15ean.**

BIGARRENA.- Emaitzak iragarki-taulan eta DEBABE Udal Euskaltegiko webgunean argitaratzea.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik jaso ezean, emaitzak behin betikotzat onartzea eta iragarki-taulan eta DEBABE Udal Euskaltegiko webgunean argitaratzea **maiatzaren 22an.**

Erreklamaziorik jaso ez denez, hona hemen 3. ariketaren behin betiko emaitzak:

NAN ZENBAKIA	PUNTUAZIOA	GAI / EZ GAI
9877*	30	GAI
5145*	25	GAI
5725*	22	GAI
3341*	20	GAI
3808*	19	GAI
1714*	17	GAI
3873*	17	GAI
1601*	16	GAI
9316*	15	GAI
4552*	13	EZ GAI
5792*	12	EZ GAI
0824*	10	EZ GAI

LAUGARRENA.- Oinarrietan 4. ariketa aipatzen da, Euskara ariketa, hain zuzen ere, baina orain arte egindako ariketak gainditu dituzten hautagaiek 4. H.E. edo C2 maila aitortuta dutenez eskaera-orrian, ez da laugarren ariketarik egingo.

DEBABE Udal Euskaltegiak e-posta: udaleuskaltegia.elgoibar@debabe.eus

BOSGARRENA.- Hirugarren ariketan **GAI** izan diren izangaiak, lehiaketa-aldira pasatuko dira. Merezimenduak kalifikatzeko, **hamar (10) egun** balioduneko epea izango dute merezimenduak alegatzeko eta egiaztatzeko. Egiaztagiria aurkezteko azken eguna **ekainaren 5a** izango da. Egiaztagiria elektronikoki aurkezten dituen hautagaiak, aurretik konpultsatu egin beharko ditu, eta kopia konpultsatua igo beharko du erregistrora. Dokumentuaren izenak bat etorri behar du eskaeran jarritako izenarekin. Egiaztagiria euskaltegian bertan aurkezten dituen hautagaiak, aurretik konpultsatuak izan beharko ditu, edo, jatorrizko egiaztagiria eta horren kopia ekarri beharko ditu frogatu ahal izateko.

Deialdiaren laburpena Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen egunera arte hartutako merezimenduak baino ez dira baloratuko, hau da, 2023ko maiatzaren 2ra artekoak.

ZAZPIGARRENA.- Meritu lehiaketan ateratako puntuazioak **ekainaren 19an** argitaratuko dira iragarki-taulan eta DEBABA Udal Euskaltegiaren webgunean. Erreklamaziorik egon ezean, **ekainaren 26an** argitaratuko dira oposaketan egindako azterketa guztien emaitzak eta puntuazio orokorra.

Elgoibar, 2024ko maiatzaren 21a

Izp.: Susana Gurrutxaga Arriola

EPAIMAHAIKO LEHENDAKARIA